

14. ERBI ZURIA:

1. Koka itzazu puntuak (.) eta komak (,) ipuin honetan:

Erbi zuria

Haize Printza ehiztari trebea zen ☐ Leinuko bestéek bezalaxe, Arkua eta geziak zituen, eta bere familiakoak mantentzeko ehizatzen zuen ☐

Uda batean, ordea, lehortek eraginda, animaliek herrixka inguruko zelaietatik alde egin zuten iparralderantz, bazka, elikagai, edari bila.

Haize Printzak eta leinuko gainerako ehiztariak ere ☐ kanoak hartuta, iparraldeko lurretara joan ziren ☐ Bertan ☐ kanpamentua ezarri zuten ☐ eta ehizara irteteko prestatu ziren.

Haize Printzak orein baten oinatzak ikusi zituen, eta haren atzetik abiatu zen poliki-poliki. Bat-batean ☐ elur-maluta bat erori zen zerutik, eta gero beste bat eta beste bat ☐ soro guztiak erabat zuri geratu ziren arte ☐ Ehiztari gaixoak oreinaren arrastoa galdu zuen. Eta elurraren zuriak erdi itsuturik, galdu egin zen.

—Nireak egin du! —pentsatu zuen ☐ Ez dut inoiz kanpamentua aurkituko.

Hori zerabilen buruan ☐ erbi nabar bat saltoka-saltoka hurbildu zitzaionean.

—Galduta zabiltzala egingo nuke —esan zion erbiak Haize Printzari.

—Bai —erantzun zuen gizonak—. Elurrak bidea estali du eta ez dakit kanpamentura itzultzen ☐

—Ba, nik badakit non dagoen kanpamentu hori —jarraitu zuen erbiak hizketan—. Nahi baduzu ☐ bertara eramango zaitut.

Ehiztaria, apur bat harriturik ☐ erbiaren atzetik abiatu zen elurrak estalitako soroetan zehar ☐ Eta erbiak kanpamentu ingurura eraman zuen ☐ Orduan ☐ Haize Printzak, erbiaren ilaje leuna ferekatuz ☐ esan zion:

—Eskerrik asko, erbi adiskidea, bizitza zor dizut. Hala ere ☐ badakizu gu ehiztariak garela. Beraz, agian gutariko batek hil egingo zaitu gaur edo bihar.



Haize Printzak erbia ferekatzen zuen bitartean ☐ erbiaren ilaje nabarra zuri bilakatuz zihoan ☐ Azkenerako guztiz zuritu zen animalia ☐ gorpuz ☐ muturretik buztaneraino zuritu ere ☐

Gehiago itxaron gabe ☐ jauzi handiak eginez aldendu zen erbia ☐ Laster ezkutatu zen Haize Printzaren begi bistatik. Zuria zenez gero ☐ ikusezina zen elurretan ☐ Ehiztariek ez zuten ikusiko ☐ ezta ehizatuko ere ☐

Horrela, bada ☐ lurralde hotz eta elurtuetako erbiek zuri-zuriak izaten jarraitzen dute gaur egun ere ☐

Amerikako indiarren ipuina
Munduari itzulua 18 ipuinetan, Antton Irusta (Moldatua)



2. Orain, koma noiz erabili azaltzen zaigu arau batzuen bidez, baina adibideak falta dira!

Ikusi hurrengo orrialdean ematen zaizkizun adibideak.

ADIBIDEAK:

Eskerrik asko, erbi adiskidea, bizitza zor dizut.
Uda batean, ordea, lehortek eraginda animaliek alde egin zuten.
Haize Printzak orein baten oinatzak ikusi zituen, eta haren atzetik abiatu zen poliki-poliki.
Joan ziren orduan edari, elikagai, edalontzi eta plateren bila.

Mugitu eta koka ezazu adibide bakoitza dagokion arau edo azalpenarenarekin:

KOMA: har ezazu arnasa, laburra naiz baina efikaza.

i

Irakurleak esaldi barruan egin beharreko geldialdia adierazten duen marka da koma.

1. Funtzio edo mota bereko hitz edo hitz-multzoak elkarren segidan daudenean, komaz bereizten dira. Adibidez:

.....

2. Norbaiti dei egiterakoan edo bere izena aipatzerakoan erabiltzen diren hitzak koma artean idatzi behar dira. Adibidez:

.....

3. Aurrez esandakoa argitu edo osatzeko tartekatzen diren hitzak koma artean jartzen dira. Adibidez:

Hori, nire lagun batek esan duenez, lelokeria da.

4. Zenbait testu antolatzaile eta lokailu koma artean idazten dira gehienetan. Adibidez:

.....

5. Hainbat esaldiren zati nagusia, batez ere esaldi luzea denean, komaz bereizten da. Adibidez:

.....